

Parean

Maiden IANTZI
GOIENETXE

Haurrak zirela zaharrei irriz ibiltzen ziren, eta ohartu orduko, eurak zahartu. Adinkeria sexismoa eta arrazakeria baino hedatuago dagoela irakurri diot “Elhuyar” aldizkarian master amaierako lana gai honetaz egin zuen Borja Doncel erizainari. Antza denez, 5 urterekin halako jarrerak ikasten hasten gara eta, adinean aitzinera joan ahala, indartzen joaten dira. Berriki, 89 urte betetzear den pertsona bat elkarrizketatzeko zortea izan nuen, eta aitortzen dut aurreiritziek eragina izan zutela nigan telefonoa hartu eta berarekin lehen kontaktua egin nuenean. Ozen eta argi mintzatzen hasi nintzaion, gorreria izan zezakeelakoan, eta zalantzak izan nituen bere buru argitasunaz. Bere lehen

hitzak aski izan nituen, ordea, uste oker horiek denak ezabatzeko. Pozez eta itxaropenez beteta agurtu nuen, esaldi eder hau apuntatuta: «Teilatuak bi malda ditu, bata eguzkitsua eta bestea iluna. Biak ikusi behar dira».

Alderantzizko norabidean, goitik behera, heldukeriaz jokatzan dugu gazteagoak direnekin, bereziki hurrekin. Casilda Rodrigañezek azaltzen duenez, umearen lehen etapan bere desioak betetzeak asetzen gaituen bezala, autonomo izaten hasten denean kexatu gabe gure errana egitea atsegin dugu. Zergatik? Autorearen ustez, nagusitzen diren arauekin bat eginez, gure egoa azpitik jaramon egiten digun norbait izanda garatzen dugu. «Bizi osoa obeditzen eman eta gero, orain nik agintzen dut».

Haurraren parean jarri, eta agindu ordez informazioa ematen badiot, eta konplizitatez atsegina bilatzen badugu elkarrekin, bizipozez, eskuzabaltasunez eta irudimenez besarkatuko nau, eta plazerean sarrarazi. Urtetan utzitako –baina ez ahantzitako– jostetarekin dibertitu eta denboraren nozioa galduko dut. Buruak iraganera eta etorkizunera eskapo egiten didanean, orainera ekarriko nau. Eta erraten diodanean pixka bat gehiago jostatu eta gero bazkaltzera joanen garela, argi utziko dizkit lehentasunak: «Jostatu aunitz: sei (bere hizkuntzan, infinitu)».

Erakutsiko dit etorkizunarekin esku-zabala izatea orainaldian dena ematea dela. Izan ere, beti da orain eta hemen. Edo hemen eta orain beti da. •

Zumeta

Xabier Mikel
ERREKONDO

E tzi, apirilaren 22an, lau urte beteko dira Jose Luis Zumeta hil zela, baina, hain dago presente betiko Usurbilgo ondare humanoa bilakatu zena, non kale arteko ibilian arnasaldi bakoitzean xurgatzen ditugun airean dantzan dabiltzan irudien eta kolore bizien indarra eta esentzia lurrinak.

Gogoan dut nerabe ginela, 13 urte inguru, Landaberri ikastolan epe batez irakasle izan zintugunekoa. Gogoan dut behin orri zuria lapitzarekin zirriborroz betetzeko ariketa “zaila” jarri zenigula... hura bai, hura ongi genekien egiten! Eta amaitzean, esan zenigun: «Orain begiratu orrira, ea zer ikusten duzuen». Harri-

garria izan zen emaitza, begia non jarri, irudiren bat atzematen genuen-eta marra ero haien artean. Bada, esango nuke hura izan zela nire lehen irudimen ariketa kontzientea. Gauza ederragorik!

“Espresionismo abstraktua” zer den ere irakatsi diguzu kaletarro, mugimendu sozial ugarirentzat margotu kartelen eta zure lagun Mikel Laboaren diskoen portaden bidez. Luxu galanta, Jose Luis, izan zaren bezalakoa izateagatik.

Gogoan dut 70eko hamarkadan Udalak kulturaren alde apustu ederra egin zuela zurekin, Jose Luis, 16x9 metroko zeramikazko mural erraldoia egin zenezan; geroztik herriaren ikono eta iparorratz dena.

Gogoan dut duela 15 urte hamarkadatan zure frustrazio nagusia izan zena, ametsezko landa eremuan Arte Estudioa muntatzeko proiektu kuttuna, egia bihurtu zuela Udalak, eta kultur munduaren babes zabala jaso zuela; Zumetaren eta Usurbilen onerako, jaioterriarekin lotura sendotuta eta herritarrekin tailerrak antolatzeke borondatearekin.

Duela lau urte galdu zintugun, Jose Luis, baina nago, Zumeta jauna, Laboa jaunarekin batera zabiltzala Etxebeste kalean goiti-beheiti, Patritik Zendoiara eta buelta, ardo beltz kopari helduta zure lemari nola: “Tabernan hobeto”...

Margolari handiak ez dira inoiz hiltzen. Zumeta gure ARTea izanen da betiko. •